



Gora ta behera bizitza

Unai Iturriaga Zugaza-Artaza

Jaiotzetik hil arterako bidaia,
koplen abiadura bizian!

Doinua: Gora gu eta gutarrak
Neurria: Hiru puntuko kopla

JAIO

- 1 Ama hasi zen **erditzen**
ni ez nintzaion **kabitzen**
buruz ez nintzen prestatu
ta ipurdiz jaio **nintzen**.

UME

- 2 Bai bizimodu **pirata!**
jolas, jan, lo eta **kaka**
ez dut sekula hazi nahi
hau paradisia **da-ta!**

NERABE

- 3 Bihotza taupa ta **taupa**
nerabea **alarauka**
neuk ezagutzen ez dudan
gorputz batek preso **nauka**.
- 4 Omen naiz oso **bordea**
zakar, **axolagabea**
zuri axola dizunak
ez dit axola, **ordea**.

GAZTE

- 5 Nago mundua **hausteko**
edonon sua **pizteko**
baina ez daukat dirurik
txiskero bat **erosteko**.

HELDU

- 6 Gaztetasuna **ihesi**
helduak lana **lehenbizi**
umeei begira eta
zaharrak bezala **bizi**.

ZAHAR

- 7 Bizitza jan dut **egarriz**
min zahar ta maitemin **berriz**
orain nekatuta nago
ume izan nahi dut **berriz**.

HIL

- 8 Bila datorkit **Herio**
nire txanda dela **dio**
azkenak itxi atea
inoiz ez arte, **adio!**